



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

IX. legegintzaldia

Iruña, 2019ko apirilaren 30a

54. ZK.

A U R K I B I D E A

E SAILA:

Interpelazioak, mozioak eta adierazpen politikoak:

- Ebazpena, zeinaren bidez onesten baitira Sodena enpresa publikoaren jarduketei buruzko ikerketa-batzordearen irizpeneko konklusioak. Osoko Bilkurak onetsiak (2. or.).
- Sodena enpresa publikoaren jarduketei buruzko ikerketa-batzordearen irizpenaren eztabaidan bazterturiko boto partikularrak (5. or.).

F SAILA:

Galderak:

- Galdera, Nafarroan ekintzaileei ematen zaien tratuari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (14. or.).
- Galdera, ikastetxe publikoetan 2019-2020 ikasturterako lanaldi jarraitua ezartzeko prozedurari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (18. or.).

E saila:

INTERPELAZIOAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Ebazpena, zeinaren bidez onesten baitira Sodena enpresa publikoaren jarduketei buruzko ikerketa-batzordearen irizpeneko konklusioak.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 67.2. artikularekin bat, agintzen da Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkuraren 2019ko martxoaren 28ko Erabakia, zeinaren bidez onesten baitira Sodena enpresa publikoaren jarduketei buruzko ikerketa-batzordearen irizpeneko konklusioak.

Iruñean, 2019ko apirilaren 1ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Ebazpena, zeinaren bidez onesten baitira Sodena enpresa publikoaren jarduketei buruzko ikerketa-batzordearen irizpeneko konklusioak

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2018ko irailaren 20an egindako bilkuran, erabaki zuen Sodena enpresa publikoak eginiko jarduketei buruzko ikerketa batzorde bat eratzea, honako hauek azter zituzan:

2005-2014 aldian Iberdrolako akzioen salerosketa operazioan baliatutako prozedura aztertzea.

Huts egin zuten zenbait proiektutan Sodenak eginiko inbertsio finantzarioak.

Davalor Salud SLri emandako mailegu batzuk.

Nafarroako Gobernuaren eta haren kideen parte-hartzea aipatu eragiketetan.

2018ko urriaren 15ean, Nafarroako Parlamentuko Mahaiak Sodena enpresa publikoak eginiko jarduketei buruzko ikerketa batzordearen (hemenetik aurrera, "Ikerketa Batzordea") osaerari, antolatari eta funtzionamenduari buruzko arauak onetsi zituen. Arau horiek 2018ko urriaren 19ko Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu ziren, 124. zenbakian.

Ikerketa Batzordea 2018ko urriaren 31n eratu zen, eta foru parlamentari Castiella Imaz jauna hautatu zuen batzordeburu.

Ikerketa Batzordeak bilerak egin ditu 2018ko urriaren 31n, azaroaren 14an eta 28an eta abenduaren 19an, eta 2019ko urtarrilaren 9, 14, 15, 21, 25, 28 eta 30ean, otsailaren 4, 5, 8, 11, 13, 15, 19, 26 eta 27an eta martxoaren 1, 5, 8, 12, 15 eta 22an, eta zenbait erabaki hartu ditu, Batzordearen dokumentazioaren parte direnak.

Ikerketa Batzordearen bilkura batzuetan zenbait pertsona agertu dira informazioa ematera. Agerraldien emaitza Nafarroako Parlamentuko Bilkura Egunkarian jasota dago. Hauek agertu dira:

María Victoria Iriarte andrea, Sodenako langile teknikoetako bat.

María Eugenia Lecumberri Alli andrea, Sodenako inbertsioko zuzendaria.

Juan José Marcos Muñoz jauna, Davalor Salud SL enpresako sustatzaile eta zuzendari kudeatzailea.

Eva García Ramos andrea, Davalor Salud SLren informazio-sistemen zuzendari ohia.

Andrés Escudero Apesteguía jauna, Davalor Software, SLren administratzaile amankomuntua.

Xavier Massó jauna, Kataluniako Unibertsitate Politeknikoko kudeatzailea.

Francisco Javier Baztarrika Navarro jauna, Iniciativas Innovadoras SAL-ren ordezkaria

Alberto Iraizoz Aldunate jauna, M-40 equipamiento SLren ordezkaria.

Félix Guinduláin Busto, Jofemar taldeko zuzendari nagusia.

Pilar Irigoien Ostiza andrea. Sodenako zuzendari kudeatzailea, Industriako zuzendari nagusi

ohia, 2015eko irailaren 17an Sodenako kontseilaria eta Davalor Salud, SLri maileguak emateari buruzko Garapen Ekonomikorako Departamentuaren txostenen egilea.

Yolanda Blanco Rodríguez andrea, Nafarroako Gobernuako Industria, Energia eta Berrikuntzako zuzendari nagusia.

Manuel Ayerdi Olaizola jauna, Nafarroako Gobernuako Garapen Ekonomikorako kontseilaria.

Uxue Barkos Berruezo andrea, Nafarroako Gobernuako lehendakaria.

Francisco Javier Azparren Ansoain jauna, Davalor Salud SLren auditorea 2014ko eta 2015eko ekitaldietan.

Miguel Ángel Álvarez González jauna, Álvarez Huarte Abogados, SLP-ren konkurtso-administratzailea.

Salvador Beltrán Codina jauna, Eve consultores-eko ordezkaria.

Román Zeglov jauna, Panorama Holding-eko kontseilukidea.

Carlos Fernández Valdivielso jauna, Sodenako zuzendari kudeatzaile ohia.

José María Aracama Yoldi jauna, Sodenako zuzendari-kudeatzailea.

Nuria Iturriagagoitia Ripoll andrea, 2002an Sodenako presidente izandakoa.

Lourdes Goicoechea Zubelzu andrea, 2015era arte Sodenako presidente eta Ekonomia, Industria eta Enpleguko kontseilari izandakoa.

José María Roig Aldasoro jauna, 2007tik 2011ra bitartean Sodenako presidente eta Industriako kontseilari izandakoa.

Javier Armendáriz Quel jauna, Industriako kontseilaria eta Sodenako presidentea inbertsioa egin zenean (2005), kontratua egin zenean (2005) eta estaldura-kontratua berritu zenean ere (2007ko martxoa).

Francisco Iribarren Fentanes jauna, Nafarroako Gobernuako lehendakariordea inbertsioa egin zen garaian (2005).

Ikerketa Batzordeak hainbat agiri igortzeko eskatu du, eta emaitza espedientean jasota dago.

KONKLUSIOAK

Ikerketa Batzordea, egindako lana ikusita, 2019ko martxoaren 22an egindako bilkuran honako konklusio politiko hauek iritsi da, denak ere berari dagokion arlokoak:

2005-2014 aldian Sodena enpresa publikoak Iberdrolako akzioen salerosketa operazioan baliatutako prozedurari eta haren emaitzari dagokionez:

Lehena.- EHN-n desinbertitzea IBERDROLAREN % 1 eskuratzeko, Foru Komunitatearen interesen aurkakoa izan zen, eta konklusioa da horren emaitza oso negatiboa izan zela, bai ekonomikoki, bai gure lurraldeko egitura ekonomiko eta soziale-tan izan zuen eraginaren ikuspuntutik ere.

Bigarrena.- Inongo txostenen aurreko abalik ez duen erabaki bat da, zeren eta ez Sodenako teknikariek, ez eta beste inongo instantzia publikok ere ez baitzuten txostenik eman; beraz, Sodenaren inbertsioetarako ezarritako prozedura gordinki bortxatu zen; eta are larriagoa da hori haren zenbatekoari erreparatuz gero.

Hirugarrena.- Iberdrolaren akzioak eskuratzeko erabaki "politikoak" ez zen inoiz ere inongo interes publikorekin ezkondu; izan ere, xede izan zuen IBERDROLAREN akziodunek eskatutako "egonkortasun" beharri zenei erantzuna ematea, Sánchez Galán presidentearen eskakizunei jarraituz eta Nafarroaz kanpoko interesen ondorioz.

Laugarrena.- Operazio honen erantzule politikotzat UPNk eta CDNk koalizioan sortutako Nafarroako Gobernua jo behar dugu, haren buru Miguel Sanz Sesma lehendakaria eta Francisco Iribarren Fentanes lehendakariordea.

Bosgarrena.- Ikerketa Batzordeak erabaki du lekukotasuna Fiskaltzara eta bidezko instantzia judiziale-tara igortzea, Sánchez Galán jaunak Zigor Kodearen 504. artikulua ustez urratu duelakoan eta ustezko dokumentu-lekukotza faltsua eman duelako, akzioak eskuratzeko prozesuan parte hartu izana ukatu baitu.

Seigarrena.- Sodenak Iberdrolaren akzioak erostea, Nafarroako Gobernuko buru UPN zegoela, exekutibo batentzat desegokia den espekulazio egintza bat izan zen.

Zazpigarrena.- Erosketa-prozesua gauzatu zen, halaber, aginduzko txostenetan bermerik eduki gabe, eta geroztik propio egindako dokumentazio batean oinarrituta; horrek Sodena toki txarrean uzten du, zeren eta ez baita bere profesionalez baliatu kontrol- eta onespen-lana egiteko.

Zortzigarrena.- Sodenaren akzioak eskuratzeko salerosketa-operazioak 51.349.412 eurotan zenbatetsitako galerak eragin zizkien Nafarroako Gobernuaren kutxei, eta Sodenaren inbertsioen historian errekorra izan zen. Prozesu osoa UPN-ren gobernuekin gauzatu zen.

Sodena enpresa Publikoak Burgos familiari antzinako ibilgailuen bilduma erosteko baliatutako prozedurari eta haren emaitzari dagokienez:

Bederatzigarrena.- Egiaztatu da operazio horretan, Sodenan, praxi okerreko eredu bat egon zela, zeren eta erabaki pertsonal bat hartu baitzen eta, gero, hura justifikatu eta xede bat bilatu nahi zaio.

Hamargarrena.- Inbertsioa ez zegoen oinarrituta alde aurreko txostenetan, ez Sodenako teknikarien txostenetan, ez eta inongo beste entitate publikoren txostenetan.

Hamaikagarrena.- Helburua ez zaio egokitzen Sodenak jarduketa-esparru gisa dituen parametro-etako bakarrari ere.

Hamabigarrena.- Operazio horren erantzukizun politikoa UPNren Gobernuarena da, bereziki haren lehendakari Miguel Sanz Sesma jaunarena eta Industriako kontseilari Nuria Iturriagaitia andrearena.

Hamahirugarrena.- Ezin izan da jakin non dauden eskuratutako bi motozikleta; hori dela eta, egungo Nafarroako Gobernua eta Sodena premia-tzen dira ibilgailu horiek non dauden iker dezan.

Hamalauugarrena.- Sodenak Burgos familiari automobil-bilduma erosteko, aginduzkoak diren txosten teknikoak falta ziren; gainera, eskrituretan ageri arren museo baterako erabiliko zirela, museo horren eraikuntza ez zen baloratu eta, azkenean, aukera hori baztertu zen, zeukan kostu handia zela eta. Hori guztia dela eta, konklusioa da erosketa arinegi egin zela, kontrol egokiak eduki gabe eta argitu gabe geratu den helburu batekin.

Hamabosgarrena.- Burgos familiaren ibilgailuak Classicmobilia Limited britainiarri saldu zitzaizkionean, salmenta horretan eskatu beharrekoa zen prezioetik behera burutu zen salmenta. Halaber, bi motozikleta galdu izanak inongo azalpenik ez du, eta azalera ematen du UPNk Nafarroan lideratu zituen gobernuek arduragabekeria argiz jokatu zutela.

Sodena enpresa publikoaren jarduketei buruzko ikerketa-batzordearen irizpenaren eztabaidan bazterturiko boto partikularrak.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 62.8 artikulak ezarritakoarekin bat, agintzen da Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara daitezkeen Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2019ko martxoaren 28an egindako bileran, Sodena enpresa publikoaren jarduketei buruzko ikerketa-batzordearen irizpenaren eztabaidan bazterturiko boto partikularrak.

Iruñean, 2019ko apirilaren 1ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Unión del Pueblo Navarro talde parlamentariak aurkezturiko boto partikularra

Ikerketa Batzordearen bilkurak egin ondoren eta Iruñeko Merkataritza arloko Epaitegitik, Sodena sozietate publikotik, Nafarroako Gobernutik eta Davalor Salud merkataritza sozietatearen konkurtso-prozesuan esku hartutako Konkurtso Administrazioetik, bai eta Kataluniako Unibertsitate Politeknikotik ere, jasotako dokumentazioa aztertu ondoren honako konklusio hauek atera ditugu:

KONKLUSIOAK

1.- Sodena sozietate publikoak badauka prozedura bat ezarrita, enpresa-proiektu jakinetarako abal, mailegu edo inbertsioak onesteari buruzko erabakiak hartzeko.

Laburbilduz, erabakiak hartzeko prozesu horretan, sustatzaileek enpresa-proiektua aurkeztu ondoren, langile teknikoek ordezkari Iriarte andreak batzorde honetan adierazi zuen bezala, Sodenako zerbitzu teknikoek honako hauek egiten dituzte: "Behin proiektua iritsita, haren ezaugarriak aztertzen ditugu, eta ikusten dugu zein den proiektua aztertu behar duen lantaldea –arriku-kapitala baldin bada, zeren eta gu ez baikaude arlo horretan, ez beste laguntza batzuen edo erregio-estrategiaren arloan– barnean esleitzen da zein den hura aztertu duen pertsonen lantaldea, eta proiektuaren azterketa exhaustibo bat egiten da, zeinean proiektu batean aztertzen denean aztertu behar diren alderdi guztiak aztertzen baitira: bezeroak, merkatua, hirugarrenekiko alderatzea, teknologia eta abar. Teknologia bat bada eta barrenean hura baloratzeko gaitasunik ez badago, ikusiko dugu nork lagunduko gaituen balorazio horretan, hirugarren bat kontratatu behar ote den arlo jakin batean lagun gaitzan.

Baldin eta jabetza intelektualaren gaia bada negozio-eredua eraikitzeke palanka garrantzitsuenetako bat, hirugarren aditu baten laguntza eska dezakegu, arlo horretako azterketa egin dezan. Ikusten joaten gara. Saiatzen gara ahal den guztia kontrastatzen eta azterketa oso bat egiten dugu negozio-planaren alderdi guztiei buruz. Ez dut uste hemen aipatu behar ditugunik. Gure lana da azterketa tekniko bat egitea eta azterketa hori txosten batean jasotzea; izan ere, txosten hori euskarria izanen da administrazio kontseiluarentzat, inbertsio-erabakiak har ditzan. Sodenaren kasuan, soilik fase goiztiarretako partaidetza-maileguak, 100.000 eurora artekoak erabakitzen ditu zuzendaritza-batzordeak. Gainerako laguntza finantzarioak Sodenaren administrazio kontseiluak erabakitzen ditu.

Prozedura-arau hori bat dator Kontuen Ganberak 2014-10-13ko fiskalizazio-txostenean adierazitakoaren; honako hau jasotzen du, hain zuzen: Behin inbertsio-proiektu bat aurkeztuta, Sodenak, enpresari finantza-baliabideak eman baino lehen, honako alderdiak hartzen ditu kontuan: Inbertsio-proiektua eta zuzendaritza-taldea Nafarroan kokatuta izatea. Sustatzaile eta akziodunek konpromiso ekonomikoa hartzea, diru bidezko parte hartzeari eta ekarpenari dagokienez, eta hirugarrenei aldi baterako parte hartzen lagatzeko prest egotea. Zuzendaritza-taldearen gaitasuna eta proiektuarekiko konpromisoa. Enpresa-proiektuaren ezaugarriak, besteak beste: sendotasuna; bereizkuntza; Nafarroan lehiarik ez izatea; bezeroak identifikatzea; eskariak era abarrekokoak, sortu berriak diren produktu edo enpresen kasuan; Nafarroarentzat sortutako balioa, zuzeneko eta zeharkako inbertsio-bolumenaren errentagarritasun sozialari dagokionez; sektorea; sortutako enplegua eta haren kualifikazioa eta errentagarritasun fiskala; eta, gutxienez ere, ehuneko 12ko finantza-errentagarritasuna izatea. Enpresa-proiektua negozio plan batean islatu beharko da, eta plan hori Sodenaren edo/eta hirugarrenen talde batek aztertu eta ebaluatuko du. Negozio planak honakoak jasoko ditu, parametro nagusien artean: aurreikusitako inbertsioa; merkatuari eta sektoreari buruzko azterlana; giza baliabideen plana; zuzendaritza taldea; azterketa ekonomiko-finantzarioa; planaren egutegia, eta AMIA analisia. Bazkideen arteko itunak sinatzen dira parte hartutako enpresarekin, eta haietan, besteak beste, honakoak arautzen dira. Sodenak parte hartutako enpresan irauteko konpromisoa, hartatik

irteteko mekanismoak eta partaidetzak balioesteko prozedura. Behin Sodenako teknikari batek proiektua ebaluatuta, inbertsio-proposamen bat eginen du, zeina Inbertsio Batzordeak eta Sodenaren Administrazio Kontseiluak onetsiko baitute.

Halaber, prozedura erregulatzaille hori berretsi egin zuten sozietate publikoko zuzendari kudeatzaile kargua bete izan dutenek 2001etik 2015era. Izan ere, bai José María Aracama jaunak, bai Fernández Valdivieso jaunak, honako hau berretsi zuten, azken horrek deklaratu zuen bezala: “Inbertsio-proposamen bat jasotzen denean, sustatzaileen taldea hartzen da. Inbertitu beharreko kopuruaren tamainaren arabera –garai hartakoa, berriz diot–, proiektuaren beharrian finantzarioaren arabera eta proiektuaren gaiaren arabera, eta zuzentzen zaion sektore industrial edo enpresariaren arabera; bi aldagai horien arabera, lantalde bat esleitzen zitzaion proiektua aztertzeko, eta proiektuaren azterlan bat egiten zen, non aldagai desberdinak neurtzen baitziren. Agerikoa den bezala, Sodenaren lantalde tekniko atal finantzarioan dago espezializatua, zeren eta Sodena Nafarroako Gobernuaren tresna finantzario bat baita; horrenbestez, azterketa sakonena alderdi finantzarioei dagokiena da. Azterketa egin da dagoenean, kasuko arloko erantzuleak proposamena aurkezten dio zuzendaritza-komiteari; zuzendaritza-komite horrek alde onak eta alde txarrak eztabaidatzen ditu, gauzak zuzentzen ditu eta informazio gehiago eskatzen du; lantaldeak lan egiten jarraitzen du, informazio gehiago jasotzen du; zuzendaritza-komitea itzultzen da, eta zuzendaritza-komitea da barnean azken hitza duena hura administrazio-kontseiluari aurkezteko edo ez aurkezteko; eta, azkenean erabakitzen bada, administrazio-kontseiluari aurkezten zaio eta kasuko laburpena eta proposamena prestatzen dira, administrazio kontseiluak erabakia har dezan”.

2.- Gaur egun Sodenako lehendakari eta Nafarroako Gobernuko lehendakariorde Ayerdi jaunak, Davalor Salud enpresari emandako maileguari dagokionez (gaur egun likidatzeko fasean dago, konkurtso-prozesua eta gero), ez zuen erabili Administrazio Kontseiluak erabakiak hartu aurreko izapideetako bakarra ere.

Hartara, saihestu zuen Sodenaren zerbitzu teknikoari helaraz zekienik Davalor Salud merkataritza-sozietateari milioi bat euroko mailegu bat emateko proposamena; izan ere, proposamen hori sortu zen, Gobernuko lehendakariordeak deklaratuakoari jarraituz, enpresako sustatzailearekiko – Marcos jaunarekiko– eta Baztarrika jaunarekiko – enpresaburuaren bitartekaria zen– bilera batean.

Ayerdi jaunaren esanetan 2015eko abuztuaren 4an enpresaren instalazioetan egin zen bilera horren ondotik –instalazio horietara lehendakariordea Gobernuko edo Sodenako teknikaririk gabe joan zen– Ayerdi jaunak ez zuen gaiari buruz kontsultatu sozietate publikoko zerbitzu teknikoekin; horrenbestez, horiek, ezin izan zuten aztertu, ez eta ezagutu ere, Davalor Salud merkataritza-sozietateari milioi bat euroko mailegua emateko proposamena.

Proposamenari buruz ez zion informatu, ezta ere, garai haietan Sodenako zuzendaria zen Fernández Valdivielso jaunari, zeinak, konpainiaren barruan, gainera, gainbegiratze-eginkizunak betetzen zituen proposamenak aztertzen zituen zuzendaritza-komitean.

Era berean, datak bat badatoz ere (2015eko uztailaren 31tik abuztuaren 7ra), saihestu zuen Davalor gaiari buruz kontsulta egitea karguan aurrekoa izan zuenari, Goicoechea andreari, zeinarekin garai hartan bilera bat izan baitzuen bere eskumeneko gaiak aztertzeko.

Era berean, Ayerdi jaunak onartu zuen Davalor Saluden gaiari buruz hitz egin izana, labur bada ere, zuzendari kudeatzailearekin, sustatzailearekiko bilera agendan jaso ondoren.

Hala eta guztiz ere, inoiz gehiago ez zion informatu Sodenako zuzendariari Sodenaren kargura milioi bat euroko mailegu bat emateko aukerari buruz.

Horrenbestez, Ayerdi jaunak, kontzienteki, saihestu zuen Sodenako arduradunei helaraztea Marcos jaunaren jabetzako konpainiari milioi bat euroko balioa zuen mailegu bat emateko zeukan ideia.

Horrela, zerbitzu teknikoek ezin izan zuten ez inongo azterketarik, ez inongo irizpenik egin ezarritako prozedurari buruz, zeren eta ez baitzitzaien inoiz informaziorik eman Ayerdi jaunak, Marcos eta Baztarrika jaunekin bildu ondoren, adostutako proposamenari buruz.

Nekez jarriko zen martxan prozedura, baldin eta sozietate publikoko zerbitzu teknikoek ez bazituzten ezagutzen Gobernuko lehendakariordearen planak.

3.- Politika ekonomikorako zuzendari nagusiak lerketa Batzordean deklaratu zuen Marcos jaunaren enpresarako milioi bat euroko maileguaren proposamena prestatzeko ustezko ekintzei buruz: “Nik taldean lan egiten dut, laguntzaile bezala, kabineteburuarekin eta lehendakariordearekin, eta taldean lan eginda sortu genuen gure proposamena”.

Aurrerago, milioi bat euroko mailegurako proposamena sortu zuen "talde"ko kideak konfirmatzeko galdetzen zaionean, Irigoyen andreak honako hau erantzun zuen: "Lehendakariordea, kabineteburua eta ni neu".

Deklarazio hori, berez, egozketa-froga bat da, zeinaren bidez egiaztatzen baita nola lehendakariordeak, kabineteburuarekin batera, zeinak ez baitu eskumen organikorik, eta berriki izendatutako zuzendari nagusiak, proposamen bat "sortu" zuten Sodenako teknikariei eta Nafarroako Gobernuko funtzionario publikoei bizkarra emanda.

Zuzendari nagusiak, 2015eko abuztuaren 13an izendatuak, izendatua izan eta hiru astetara, ustezko txosten tekniko bat egin zuen, berak egina, Nafarroako Gobernuko teknikarien eta Sodenako zerbitzu teknikoaren aholkurik eta laguntzarik gabe; izan ere, horiei mailegua babesteko idazki hori egiten ari zenik ere ez zitzaien esan, hain zuzen ere lehendakariordea mailegua babesteko Gobernu bilkurara joan zen egun bereko data duena.

SÁNCHEZ DE MUNIÁIN LACASIA JAUNA: Kontraste-lan horretan, harremanetan jarri al zinen Sodenako teknikariekin, Sodenako zerbitzu teknikoaren batekin, informazio edo datu gehiago eskatzeko?

SODENAKO ZUZENDARI KUDEATZAILEA (Irigoyen Ostiza andrea): Ez, ni ez.

...

SÁNCHEZ DE MUNIÁIN LACASIA JAUNA: Ezta behin ere?

SODENAKO ZUZENDARI KUDEATZAILEA (Irigoyen Ostiza andrea): Ez naiz gogoratzen, baina ez, uste dut ezetz.

SÁNCHEZ DE MUNIÁIN LACASIA JAUNA: Noski, nik uste dute txosten hori ongi eginda dagoela, eta txostenak dioenaren aurkako edo hartatik desberdina den erabaki bat hartu behar badut, eta denbora labur batean hartu behar badut, gutxienez ere beharko nukeena da, hori egiteko aukera baldin badut –iruditzen zait–, kontrastatzea norekin egin duten, informazio gehigarriren bat badagoen, dela Sodenako teknikarien eskuetan, dela zuk zuzendari nagusi gisa zuzentzen duzun departamentuan, trukatu beharko litzatekeen informazioaren bat badago ere, edo kontuan hartu beharko litzatekeen gairen bat adierazi behar bada ere. Ezta behin ere? Hau da, zentro teknologikoekin hitz egiten duzu, zuk aipatzen dituzun horiekin guztiekin, eta hamabost egun horietan ez duzu hitz egiten Sodenako tek-

nikariekin, inongo harremanik ez duzu haiekin, ez diezu inongo informaziorik ematen?

SODENAKO ZUZENDARI KUDEATZAILEA (Irigoyen Ostiza andrea): Ez

Gainera, garai hartan politika ekonomikoko zuzendari nagusia zenak (aurrerago, Sodenako gerentea izanen zena) sinatutako idazki hori idazteko arduradun teknikoaren laguntza faltatzeaz gainera, motibazio gisa jaso zen, gutxienez ere egitate batzuen aipamen bat, baina ustezko informatzaileak ez zuen, hain zuzen, egitate horietan parte hartu, eta batzordearen aurrean adierazi zuen bezala, egitate horiek Ayerdi lehendakariordeak eman zizkion aditzera.

SÁNCHEZ DE MUNIÁIN LACASIA JAUNA: Zure txostenean, justifikazioetako bat honako hau da: Jofemarrera egindako bisitan, egiaztatu da proiektuarekin nolako konpromisoa duen: negozio-unitate independente bat sortu dute eta garapen osorako nabe bat prestatu dute. Aurreikusita dute prozesurako berrogeita hamar pertsona kontratzea, eta hortik gora, kasuko erritmoaren arabera. Zu ez zinen Jofemarren egon. Zure txostenean, ezagutzen ez duzun zerbaiten aipamena egiten duzu?

SODENAKO ZUZENDARI KUDEATZAILEA (Irigoyen Ostiza andrea): Nik ez nuen egin Sodenaren txostena, ezta ere. Aipatzen dut sinesgarritasuna ematen didana, eta lehendakariordearen hitzak sinesgarritasuna ematen dit.

Horrela, bada, ustezko txosten tekniko hori benetan halakorik ez da, zeren eta hura idazteko ez baitzen eskatu inongo arduradun teknikoaren laguntza, lehendakariordearen hitzaz beste kontrasterik ez duten datu eta zenbatekoak jasotzen ditu –berari aurkezten zaio ustezko txostena– eta, harrigarriagoa dena, jada milioi bat euroko mailegua emateko erabakia hartuta eta enpresaburuari eta bere bitartekoari jakinarazita zegoenean idatzi zen. Jakinarazte hori Iruñeko jatetxe ezagun batean izan zen, bazkari batean, zeinean beste behin soil-soilik Ayerdi lehendakariordeak, Marcos enpresaburuak eta Baztarrika jaunak hartu baitzuten parte; azken horrek Batzordean deklaratu zuen aipatutako bazkaria irailaren 7an izan zela (-txostenaren data eta gobernu-bilkura baino bi egun lehenago), ondoren transkribatzen dugun bezala:

SÁNCHEZ DE MUNIÁIN LACASIA JAUNA: Eta bazkari horretan, honako hau esan zuen promotoreak: «Kontua zen bakarrik... Nik proiektua azaldu nion, beharizan-egoera bera ez. Are gehiago –berri diot–, bazkari hartan –errepikatu zuen promotoreak– inoiz ere ez nion Kontseilariari beharri-

zanen berri eman. Besterik gabe proiektua azaldu nion eta esan nion: "hemen gaude"». Berriz ere galdetu genion; honako hau esan genion: «Orduan, kontua da besterik gabe kontatzea, norbera aurkeztea». Honako hau dio: «Horixe izan zen, bazkari deskriptibo hutsa izan zen». Orain esaten duzu bazkari hartan jada kontseilariak berak esan zizuela Gobernuari proposatu behar diola Sodenak Davalorri milioi bat euroko mailegu bat emateko.

BAZTARRIKA NAVARRO JAUNA: Bai

4.- Ayerdi lehendakariordeak bazekien ez ziola Davalor Saludi mailegu hori eman behar, zeren eta enpresa jada 2015eko irailean kaudimen gabeziako egoeran baitzegoen.

Kaudimen gabeziako egoerari buruzko ezagutzaren ebidentzia hori, lehendakariordeak duena, eta, horrenbestez, Davalor Saludek ezin hartu izatea Ayerdi jaunak modu irregularrean emandako mailegua, Batzordeari emandako honako datu eta lekukotasunen bitartez egiaztatzen da.

Lehenbizi, Sodenaren zerbitzu teknikoaren txostena, oinarria izan zena Sodenak, 2015eko ekainaren 23an egindako Kontseiluan, Davalor Saluden laguntza ezesteko.

Txosten hori, bai garai haietan zuzendari kudeatzailea zenak, bai Sodenako buruak, "erabateko"tzat jo zuten, zeren eta argi eta garbi gomendatzen baitzuen Sodenak inbertsiorik ez egitea halako egoera batean zegoen merkataritza-sozietate batean. Aipatutako inguruabarrak, gainera, okerragotu egin ziren hurrengo hilabeteetan.

Txosten horren konklusioetan jada ikusten zen ezen 2015eko ekainean enpresa horren egoera "kritikoa" zela "enpresak zenbatetsitako beharrek, sei milioi ingurukoek, ez zutela estaltzen ez egungo zorra, ez finantza-baliabide gehigarriak, ez eta 2015eko ekitaldiari zegozkionak ere...". Beharri-zan horiek, txostenari jarraituz, 15 milioi eurokoak ziren, eta ez sei milioi eurokoak, horixe adierazi baitzuen enpresak.

Gainera, txostenaren konklusioetan, honela jarraitzen da: "zorra 4,6 milioi eurotik gorakoa da, eta haren % 78 mugaeguneratutako zorra da, 2015eko martxotik exigi daitekeena".

Bigarrenik, Davalor Saluden bazkide ohi eta Davalor Saluden sortzaileetako bat zenak inguruabar horiek berretsi zituen batzorde honen aurrean, eta deklaratu zuen Davalor Salud "jada hilotz enpresarial bat zela 2015erako" edo jada "2014ko ekitaldi fiskalean enpresa porrot eginda zegoela".

Halaber, egoera hori berretsi zuen Fernández jaunak, garai haietan Sodenako kudeatzailea zenak, zeinak 2015eko udan baieztatu baitzuen Davalor Salud "konkurtsu aurreko egoera batean zegoela".

Errealitate hori bera berretsi zuen Sodenako buruak 2015eko ekaineko Kontseiluan; izan ere, txostena jaso eta ezezko erabakia hartu zuen Goicoechea andreak ikerketa batzorde honetan adierazi zuen 2015eko ekainean "enpresa, halabeharrez, hartzekodunen konkurtsuan egoteko arriskuan zegoela".

Hori gutxi balitz, arrisku hori ziurtasun baten gisara egiaztatu zen 2015eko irailaren 3an, eta abuztuan erreklamazioak, ondoz ondoko ez-ordaintzeak eta itzulitako ordaintzekoak izan ondoren, D2D enpresak nahitaezko hartzekodunen konkurtsoa aurkeztu zuen merkataritza arloko epaitegian.

Egoera hori ezaguna da merkataritza arloko epaitegian dagoen dokumentazioagatik, batzorde honi konkurtsu-administratzaileak eta epaitegiak berak helarazia.

Konkurtsoa irailaren 3an eskatu zen, Ayerdi jaunak sustatzailearekin eta haren ordezkariarekin bazkaria egin baino lau egun lehenago; hartan, azken horrek deklaratu zuen bezala, lehendakariordeak enpresaburuari jakinarazi zion handik gutxira milioi bat euroko mailegua emanen zitzaiola.

Kaudimen gabeziako ageriko egoera hori osatzeko, zeina bateraezina baita mailegu-operazioa Ayerdi jaunak planeatutako moduan egin ahal izatearekin, jakin dugu Konkurtsu Administrazioak eskatu duela konkurtsuan erruduntzat hartzea, zeren eta, besteak beste, haien iritziz jada 2015ean Davalor Salud kaudimen gabeziako egoeran baitzegoen, eta data haietan, konkurtsu-legearen arabera, hartzekodunen borondatezko konkurtsoa eskatu behar izan baitzen; hartara, ikusten da sustatzailearen jokabidea iruzurrekoa izan dela, zeren eta enpresaren egoera larriagotu baitu inbertitzaileen, hornitzaileen eta zordunen kaltetan.

Horrenbestez, nahitaez ondorioztatu beharra dago Ayerdi jaunak enpresaren egoera zein zen ezagutzen zuela Sodenaren zerbitzu teknikoari bizkar emanda milioi bat euroko mailegua ematea planeatzen zuen unean. Kaudimen gabeziako egoera hori zegoen eta, gainera, nahitaezko konkurtsu bat izapidetzen ari zen, eta horrek ezinezko egiten zuen Sodenak, bere jokabidearen arabera, milioi bat euroko mailegua ematea Davalor Saludi legedia urratu gabe; horrenbestez, bidegabeko tratua eman zion enpresaburu jakin bati.

Eta guztiarekin ere, ikusiko dugun bezala, are eskandalagarriagoa da enpresa horren aldeko jarduketa, egiaztatzen denean ezen mailegu publikoaren zenbatekoaren zati bat erabili zela konkurtsoa eskatua zuen enpresari ordaintzeko, hartan atzera egin zezan lortzeko.

Ordainketa jaso gabeko eta konkurtso-prozesuan sartutako zenbat enpresaburuk ez zuten nahi izanen mesedeko tratua kate horretara bildu?

5.- Milioi bat euroko maileguaren zertarakoa: konkurtsoa eskatu zuen enpresari ordaintzea eta enpresaburuaren eta haren ordezkariaren ondarea.

Behin mailegua modu irregularrean emanda, ezarritako prozedura-arauak hautsiz, maileguaren milioi bat euroko zenbatekotik –nominen ez ordaintzeak ordaintzeaz gainera–, 150.000 euro erabili ziren D2D enpresari, konkurtsoa premiatutakoari, ordaintzeko, hain zuzen ere 2015eko irailaren 3an, lehendakariordea sustatzailearekin mailegu publikoaren ematea azkartzeko bildu zen egun haietan.

Gainera, maileguaren zenbatekotik beste 101.796 euro zuzenean Davalor Consultoría enpresara joan ziren zuzenean, zeina Marcos enpresaburuaren jabetza eskusibokoa baitzen; hain zuzen ere, Marcos jauna izan zen lehendakariordearekin pertsonalki negoziatzen aritu zena.

Eta, bestalde, milioi bat euroko zenbateko horretatik bertatik, 47.000 euro erabili ziren Inicativas Innovadoras enpresari ordaintzeko, zeinaren administratzailea Bazkarrika jauna baita; hain zuzen ere, Bazkarrika jaunak Marcos jaunarekin batera parte hartu zuen lehendakariordearekiko negoziazio pertsonaletan.

Sodenak eta konkurtso-administrazioak emandako informazioan ageri diren ordainketa horiek gauzatu ziren ordainketa-erak zizuten beste zordun eta eta hornitzaile batzuen kaltetan, zeren eta ezin izan baitzuten kobratu.

6.- Milioi bat euroko maileguak legez kanpoko estatu-laguntzaren ezaugarriak ditu, Europako araudiaren arabera.

Horretarako, aztertu behar dira Europako Batzardearen 2014/C249 eta 2016/C262 komunikazioak, estatu laguntzaren kontzeptuari buruzkoak, Europar Batasuneko Funtzionamendu Itunaren 107. artikulua 1. apartatuari jarraituz.

Komunikazio horietan, bi ezaugarri definitzen dira, zeinek mugatzen baitute noiz agintaritzak batek enpresa jakin bati ematen dion laguntza

jakin baten ondorioz enpresa horrek onurak jasotzen dituen bere lehiakideekin alderatuta.

Funtsean, bi inguruabar ezartzen dira zehazteko estatu laguntza baten aurrean gaudela:

1.- Laguntza ematen duena zuzenean edo zeharka administrazio publiko bat izatea

2.- Merkatuan inongo operatzaile pribatu ez egotea hura egiteko prest.

Bada, Blasco andreak, lehendakariordeak izendatuak izan eta Davalor Saludentzat milioi bat euroko mailegua onetsi zuten hiru zuzendari nagusietako batek, honako hau esan zuen batzorde honetan:

“Sodenan daukagun ikuspegia administrazio publikoarena da”.

Eta aurrerago: “Enpresek bankura joan baliara, bankuak ez lieke hori emanen. Edo entitate pribatuetara joan, eta ez liekete dirua emanen; hau da, Sodenak modu subsidioarioan jardun zuen...”.

Sodenako zuzendari eta kontseilari Blanco andreak, baieztapen horiekin, zehatz definitu zuen ezen Davalor enpresari emandako milioi bat euroko maileguaren kasuan, estatu-laguntza definitzen duten baldintzak betetzen zirela.

Estatu-laguntza bat zeina, aztergai dugun kasuan, legez kanpoko izanen balitzateke, zeren eta Europako erakundeari jakinarazi ere ez baitziztzaion egin, Europar Batasuneko zuzentzauek 2014/C249 komunikazioan ezarritakoaren kontra.

7.- Ayerdi lehendakariordeak eta politika ekonomikoko zuzendariak bazekiten Davalor Salud enpresak ezin zituela laguntza publikoak eskuratu, Gizarte Segurantzarekiko eta Foru Ogasunarekiko zorrak metatuak zituelako, baina Sodenako Kontseiluari ez zioten egoera horren berri eman, bertan Davalorren zuzendariak maileguak onesten jarraitzen baitzuten.

2016ko urtarrilaren 5ean, Politika Ekonomikoko Departamentuak 1.315.000 euroko laguntza bat onetsi zuen Davalorren zuzendariari, enpresa txiki eta ertainentzako 2015eko laguntzen deialdiaren esparruan.

Hala eta guztiz ere, Marcos jaunaren enpresak ezin izan zuen dirulaguntza kobratu, zeren eta enpresaren finantza-arazoak tarteko ez baitziztzaion baldintzak betetzen; hartara, urte bereko ekainaren 16an hura kobratzeko eskubidea galdua zuela deklaratu da.

2016ko deialdian, Davalorrek berriz ere eskatu zuen laguntza, eta 2017ko otsailaren 21ean ukatu

egin zitzaion, zeren eta ez baitzegoen egunera Gizarte Segurantzarekiko ordainketetan, eta 2016ko azarotik jakina da Davalor Saludek Foru Ogasunarekiko zor-betebeharretan ere huts egiten duela eta, horrenbestez, ezin du jada Nafarroako Gobernuaren dirulaguntzarik jaso, Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko Foru Legearen 21. artikuluari jarraituz.

Ayerdi lehendakariordeak eta politika ekonomiko ondoz ondoko zuzendariek, Irigoien andreak (gaur egun, Sodenako gerentea) eta Goñi andreak, zergen eta Gizarte Segurantzarekiko betebeharren ordainketa-ezaren berri badute, zeren eta beraiek baitira Ogasunari buruzko Legea eta laguntzetarako baldintzak ez betetzeagatik laguntzak ukatu zituen zuzendaritzako arduradunak.

Hala eta guztiz ere, batzorde honek galdetu zienean, ez Aierdi lehendakariordeak, ez zuzendari nagusia izan zenak ez zioten egoera hori komunikatu Sodenaren kontseiluari.

Eta horretaz guztiaz gainera, beraiek Davalor enpresari laguntzak ukatu ondoren, kasuko espediente egin ondoren eta Foru Ogasunean ordainketa-ezak egiaztatu ondoren, Sodenako kontseilura joan ziren, eta ondoz ondoko mailegu batzuk onesten jarraitu zuten, inguruabar horiek komunikatu gabe. Egoera hori egiaztatzeko, nahikoa izanen litzateke honako hauek aurkeztea: kobratzeko eskubidea galtzeari buruzko ebazpenak, 2016ko ekainaren 16koak; ukatzeari buruzko ebazpena, 2017ko otsailaren 21ekoa, eta Sodenako kontseiluen aktak, Batzordeak eskuratu dituenak, zeinek egiaztatzen baitute ebazpen horien ondoren arduradun horiek beraiek, lehendakariordea eta zuzendari nagusia, Sodenako kontseilura jo zutela eta maileguak onetsi zituztela; ez dago jasota, ordea, enpresa betebehar fiskalak ez betetzeko egoeran egoteari buruz ohartarazi zutenik.

8.- Sodenaren prozedurei eta irizpide teknikoiei iskitxo egiteko Ayerdi lehendakariordeak, bere zuzendari nagusien (horietako bat Sodenako zuzendari kudeatzaile izendatua mailegua onetsi ondoren) eta kabineteburuaren laguntzarekin, bata bestearen ondoren egindako irregulartasun eta maniobra horietatik guztietatik errugabetzeko Ayerdi lehendakariordeak erabilitako ustezko argumentu bakarra izan da Sodenak, bere historian zehar, egindako beste jarduketa batzuk zentsuratzea, Davalor enpresarekin jarraitutakoaren antzeko egoeraren bat aurkitu nahian.

Hala eta guztiz ere, eta nahiz eta argumentu horrek –antzeko egoerei buruzkoak–, egoera horiek egiaztatzen badira, ez lukeen Ayerdi jauna errugabebetuko jarraitutako jarduerak direla eta,

Sodenaren aldetik ez da bere historia guztian zehar antzeko beste inongo enpresa-proiektutarako laguntza-jarduketarik aurkitu; izan ere, batzordean agerraldia egin dutenek emandako lekukotasun eta datuetatik ondorioztatu dena hain zuzen ere kontrakoa izan da: Davalorren salbuespenarekin, Sodenaren ondoz ondoko kontseiluek, bai eta haien lehendakariak eta zuzendari kudeatzaileak ere, beti Sodena Sozietate Publikoak ezarritako prozedurak jarraitu zituzten, bai eta haien zerbitzu teknikoien irizpide zorrotza ere.

Hori guztia egiaztatzen da Aracama jaunaren (2001etik 2011ra zuzendari kudeatzailea izandakoa), Fernández Valdivieso jaunaren (2011tik 2015eko irailera arte zuzendari kudeatzailea izandakoa) eta sozietateko ondoz ondoko lehendakari izan direnen –Armendáriz, Iribarren eta Roig jaunaren eta Goicoechea andrearen– lekukotasunak aztertuz; izan ere, gaiari buruz berriaz galdetu zitzaizenean, baieztatu zuten sekula ere ez zituztela urratu ezarritako prozedurak; eta sekula “ez zutela erabaki bat eratu soilik kontseilariak, kabineteburuak eta zuzendari nagusiak parte hartuz”; eta sekula ez zutela izan kontseilaririk kargutik kendu behar eta beste batzuk azkar izendatu enpresa bati diru publikoz laguntzeko erabaki jakin bat lortzeko; eta “sekula ez zutela enpresa-proiektu jakin bat babesteko erabakirik hartu Sodenako zerbitzu teknikoiei informatu gabe”; horiek guztiak dira Ayerdi lehendakariordeak kontzienteki egindako jarduketak, egiaztatu den bezala, mailegu bat enpresaburu jakin bati helarazteko denbora-tarte jakin eta oso labur batean.

Ez zen izan, besterik gabe, huts egindako operazio bat, edo egoera berezi atipiko bat; izan ere, ageriko irregulartasunen segida eraginkor bat izan zen, Ayerdik jaunak 2015eko abuztuaren 4tik, orduan bildu baitzen enpresaburuarekin, irailaren 7ra arte egiten joandakoak, orduan komunikatu baitzion mailegua eman egingen zitzaiola; izan ere, mailegu hori aparteko modu irregular batez formalizatu zen hurrengo egunetan, horretarako 2015eko irailaren 15ean planeatutako Sodenaren kontseilu “inprobisatu” eta izugarri murriztuan egiaztatu zen arte.

Azken batean, sustatzailearekiko bilera bat, enpresaren instalazioetan zehar egindako paseo bat eta sustatzailearekin eta haren ordezkariarekin Iruñeko jatetxe batean egindako bilera bat nahikoa izan ziren Sodenaren kontseiluak, sozietate publikoaren zerbitzu teknikoek analisi zorrotza egin ondoren, erabakitako ukoari buelta emateko.

HORI GUZTIA DELA ETA, konklusioen txosten honetan egiaztatutako egitateen indarrez, eta lkerketa Batzorde honetan emandako lekukotasun

guztien eta hura osatzen duten foru parlamentarietiek eskatuta jasotako dokumentazioaren indarrez, eta egiaztatu denez irregulartasunen kate bat gertatu zela, funtsean Ayerdi jaunaren eskutik, bera izan baitzen lehenengo mailegua Davalor Saludi ematearen erantzule nagusia.

Egiaztatu denez, txosten honen lehen apartatutik zortzigarren apartatura bitartekoetan azaltzen den bezala, agertutako irregulartasunek honako hauek biltzen dituztela: ezarritako prozeduraren ez-betetze kontzientea; sozietate publikoaren teknikariak kanpo uztea mailegua emateko erabakiaren prozesu osotik; lehendakariordearen inplikazio pertsonala maileguaren onuradun izanzen zen enpresaburuarekin; konkurtso-arauaren urraketa; Europako araudiaren balizko urratzea; Sodena sozietate publikoaren ondare-kudeaketa zuhurtziagabea; mailegua Nafarroako Gobernuan, administrazio-agindu emailea baita, sortzearen inguruan detektatutako jokabideak, eta jarduketa horiek guztiek, lehenengo eta behin, Sodena sozietate publikoaren ondareari, Foru Ogasunari eta Nafarroako Gobernuari eragin dizkioten kalteak, eta, horrenbestez, inbertitzaileen, hornitzaileen eta zordunen interesetarako kalteak.

Eta ikusita ez dagokiola batzorde honi balizko erantzukizunak zedarritzea, bai legedi penalak dioenaren argitara, bai Administrazio Publikoaren aurkako balizko delituei dagokienez zein sozietateen eremuko delituei dagokienez ere, baina bidezkoa denez, ordea, ikerketa batzordea arautzen duen erregelamenduaren artikuluen babesean zein bat datorren gainerako legediaren eta jurisprudentziaren babesean, fiskaltzari jakinaraztea batzorde honetan aurkeztutako lekukotasun guztiak, bai eta haiei babesa emateko dokumentazioa ere, konklusioen txosten honekin bat etorritz, talde parlamentario honek PROPOSATZEN DU FISKALTZARI IGOR DAKIZKIOLA KONKLUSIO HAUEK, AGERRALDI-EGILEEK BATZORDEAN DEKLARATUTAKO LEKUKOTASUNEKIN ETA HEMEN AZALDUTAKO EGITATE ETA KONKLUSIOAK EGIAZTATUKO DITUEN DOKUMENTAZIOAREKIN BATERA.

Geroa Bai eta EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioek eta Izquierda-Ezkerrako foru parlamentarien elkarretak aurkezturiko boto partikularra

1.- Sodena Davalor Salud SLri mailegu batzuk emateari dagokionez, honako konklusio hauetara iritsi gara:

Lehen.- Prozedura, zeina Kontuen Ganberaren arabera apartekotzat jo baita, Garapen Ekonomikorako Departamentuko teknikariek egindako txostenetan oinarritu zen, eta Sodena Administrazio Kontseiluak erabaki zuen.

Bigarrena.- Enpresa publikoaren eta start up baten arteko lankidetzagai bat izan da, honako ezaugarri hauek zeuzkan proiektu bat garatzeko:

- Nafarroarentzat interesa duen sektore estratejiko da.

- Abiatze-fasean dagoen enpresa-proiektu bat da. Berritzailea da, goi teknologikoa, eta bakarra da merkatuan.

- I+G+b arloan inbertsio-bolumen handia du.

- Goi teknologiko enpresek proiektua laguntzen dute.

- Helburua da produktua merkatuaraino eramatea eta merkatuaren erantzuna ebaluatzea.

Ezaugarri horiek ikerketa batzorde honetan izandako agerraldietan berretsita dira.

- UPCko Xavier Marso jaunaren agerraldia.

- Jofemar enpresako Félix Guindulain jaunaren agerraldia.

- Industria, Energia eta Berrikuntzako zuzendari nagusi Yolanda Blanco andrearen agerraldia.

- Panorama Holding-eko Roman Zeglov jaunaren agerraldia.

Hirugarrena.- Lankidetzak publiko-pribatuko prozesu bat izan da, zeinean Sodena ekarpenetarako baldintza baitzen inbertitzaile pribatuek ekarpenak egitea.

Laugarrena.- DVSren proiektua Sodena lankidetzan jardun behar izatearen adibide argia da, nahiz eta, beste batzuetan bezala, bilatzen den helburua ez lortzeko arriskua egon. Kasu honetan, merkatuaren erantzuna ez zen ona izan.

Bosgarrena.- Une hauetan, likidazio-prozesuaren esparruan, konkurtso-administratzailea aktiboen salmenta kudeatzen ari da, eta Panorama Holdingen eskaintza bat jaso du haiengatik.

2.- Sodena AERTUSA-NOI NAVARRA merkataritza-sozietatean parte hartzeari dagokionez, honako konklusio hauetara iritsi gara:

Lehen.- Sodena galerak zituen eta porrot teknikoko egoeran zegoen merkataritza-sozietate baten proiektuan inplikatu zen, eta erabaki horren oinarria zen proiektuak sektore estratejiko bat garatzen zuela eta enplegua sortzeko aurreikuspena zegoela. Inplikazio hori halako puntu baterai-

no iritsi zen non Sodena izan baitzen funtsak jarri zituen bakarria, beste bazkide guztiek uko egin baitzioten.

Bigarrena.- Enpresa publikoaren eta krisian zegoen merkataritza-sozietate baten arteko lankidetzaz-gai bat izan da, honako ezaugarri hauek zeuzkan proiektu bat garatzeko:

- Nafarroarentzat interesa duen sektore estratetikoa da.

- Proiektu teknologikoa.

- NOI Navarraren proiektua Sodenak lankidetzan jardun behar izatearen adibide argi baten modura baloratzen zen, nahiz eta, beste batzuetan bezala, bilatzen den helburua ez lortzeko arriskua egon.

Hirugarrena.- Sodenak, Administrazio Kontseiluak erabaki hori hartuta, hura baldintzatuko zuen lege-betebeharririk eduki gabe, erabaki zuela CANi erostea Noi Navarrari emandako mailegu bat, azken hori Sodenak abalatu edo bermatu gabe bazegoen ere.

3.- Sodenak Estudios de Ingeniería Adaptada-EINA merkataritza-sozietatean parte hartzeari dagokionez, honako konklusio hauetara iritsi gara:

Lehena.- Sodenaren txosten teknikoek ziurgabetasun-gradu bat ematen zioten, behin merkataritza-sozietateak aurkeztutako negozio plana aztertu ondoren. Negozio-planak zalantzak pizten zituzten errentagarritasunak aurreikusten zituen.

Bigarrena.- Kontseiluaren 2006-12-19ko erabakiaren aldaketa bat gertatu zen, baina lkerketa Batzorde honetan agerraldia egin dutenetatik bakarrik ere ezin izan dute argitasunez azaldu, edo, bestela, ez dute argitasunez azaldu nahi izan.

Hirugarrena.- Sodena sozietatean sartu zenetik amaierara arte, soilik Sodenaz beste inork ez zuen funtsik jarri. Bazkide edo inbertitzaile bakarrik ere ez zuen funtsik jarri.

Laugarrena.- Sodenak erabaki zuen zailtasun finantzarioak zituen enpresa bati laguntzea, laguntza hori sektore estratetikoean zuen ahokaduran, teknologia propioako proiektu bat izatean eta enplegu-sorreran oinarrituz.

4.- Sodenak parte hartu zuen hiru operazio horietan (Davalor Salud, SL, AERTUSA-NOI NAVARRA, eta Estudios de Ingeniería Adaptada-EINA), konklusio hauek sinatzen ditugunok jasota utzi nahi ditugun antzekotasunak aurkitu ditugu:

Lehena.- lkerketa Batzordean ikertutako operazioak Kontuen Ganberak aztertu ditu, eta kasu

guztietan ebatzi du operazio horiek guztiak Sodenaren "huts-egiteak" izan direla, baina guzti-guztiek aurreikusitako prozedurak bete dituztela, eta, kasu bakarrean ere, ez dela ikusten legez kontratatzat jo daitekeen jarduketarik izan denik.

Bigarrena.- Guztiak Sodenaren xedean sartzen dira.

Egoera ekonomiko zailetan dauden enpresa edo proiektuak dira. Batzuetan, enpresak merkaturatu daude jada; beste kasu bat, berriz, prototipo bat garatzen lan egiten duen start up bati dagokio.

Jarduerak Komunitatearentzat estratetikokoak eta interesekoak diren sektoreetan kokatuta daude.

Aztertutako hiru kasu horiek hiru arlo hauetakoak dira: automozioa, energia eolikoa eta osasunari lotutako I+G+b. Sektore horiek guztiak Nafarroaren garapen-estrategiei lotuta egon dira, bai lehenago, bai orain ere.

Hirugarrena.- Izaera estratetikoko argia duten proiektuak dira.

Laugarrena.- Kasu guztietan, denbora behar da bazkide inbertitzaile bat bilatzeko. Hala eta guztiz ere, kasu bakar batean, Davalorrean, lotu zen bazkide edo inbertitzaileen ekarpena egotea: guztira, 4.050.000 euro inguru. Sodenak 2.650.000 euro jarri zituen, eta bazkide-inbertitzaile pribatuek, berriz, 1.400.000 euro baino gehixeago. Einan eta Noin, Sodena izan zen funtsen ekarpenak egin zituen bakarria, eta kasu bakoitzean 6.000.000 euro inguruko galerak izan zituen.

Bosgarrena.- Enplegu-sorreraren aurreikuspena, kasu guztietan.

Seigarrena.- Enpresen bazkide edo sustatzaileekiko harremanen zailtasuna.

Zazpigarrena.- Guztiak ere garatu dira Sodenako administrazio kontseiluek onetsitakoari jarraituz, eta guztien oinarrian txosten teknikoak zeuden.

5.- Sodenak Inversión en Parquenas merkataritza-sozietatean parte hartzeari dagokionez, honako konklusio hauetara iritsi gara:

Lehena.- Parquenasak garatu beharreko proiektua sustatu eta definitzerakoan, aurreikuspen- eta plangintza-akats ikaragarriak egin ziren, Sodenan nagusi izan behar diren bideragarritasun-azterketa ekonomikoen eta azterketa finantzarioen logika gainditzen duen ariketa euforiko batean.

Bigarrena.- Prozedura- eta azterketa-akats horien kaltetu handiena Sodena izan da, entitate publikoa, zeren eta bere aurreikuspenetan egindako porrot izugarri handiak kontrastatu zirenetik, Sodena baita jarduerari finantzarioki eusten dion bakarra.

Hirugarrena.- Ikerketa Batzordeak Nafarroako Gobernua eta Sodena premiatzen ditu berriki dezaten % 45eko partaidetza aldatu gabea, eta erreboka dezatela akziodunen itun osagarria, non Parquenasako akziodunentzako trataera lehentasunezkoak eta eskusiboak aurreikusten baitira.

Laugarrena.- Ikerketa Batzordearen ustez, fiskalizazioaren eta azterketaren arloko prozedurazko akatsen erantzukizun politikoa UPNren 1999-2003 urteetako gobernuarena da, Miguel Sanz Sesma buru zuenarena, zeinean Nuria Iturriaga-goitia Ripoll ekonomiaren arloko kontseilaria baitzen.

Bosgarrena.- Batzordeak UPN-CDNren 2003-2007 Gobernuaren erantzukizun politikoa zehazten du, zeinean Sanz jauna baitzen lehendakaria eta Armendáriz jauna, berriz, kontseilaria, zeren eta ez baitzuten jardun interes publikoaren defentsan soil-soilik beren gain hartu zutenean Parquenasaren jarduera, berritik planteatu gabe ez Sodenaren partaidetzaren portzentajea, ez eta akziodunen itun osagarria ere; azken horrek prebendak jasotzen zituen ekarpenak egiteari ezezkoa eman zioten gainerako bazkideentzat.

Seigarrena.- Era berean, ondoz ondoko gobernuen erantzukizun politikoa erakusten da, gaurkoarena ere bai, zeren eta ez baitute berriki enpresako akzioetako partaidetza, eta, gainera, ez baitute eraginik gabe utzi bazkideen itun osagarria.

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioak aurkeztutako boto partikularra

Ikerketa Batzordearen saioak egin ondoren, talde sinatzaileak honako konklusio hauek atera ditu:

Lehena.- Bai UPNk, bai Geroa Baik Sodena beren gogora erabili dute, banku partikular bat balitz bezala, prozedurak saltatuz eta egiazko objektibotasunik gabe. Ezer ere ez da aldatu, eta hortxe daude emaitzak.

Bigarrena.- Sodenaren baliorik onena izan dira, eta dira, bere plantilla osatzen duten profesional guztiak, zeinak sekula ez bezala, zipriztinduta atera baitira Ayerdi lehendakariordearen jardun arduragabearengatik. Gure ustez, epe laburrean, justizia-ahalegin bat egin beharra dago entitatearen eta haren profesionalen izen ona berrezartzeko.

Hirugarrena.- Ayerdi lehendakariordeak baiezkota eman zion Davalor Saludentzako 2015eko irailean milioi bat euroko lehen mailegu bat izapidetzeari, jakinda enpresa hori zela-eta hartzekodunen konkurtso bat bazegoela, eta txosten teknikoek ziotenaren aurka.

Laugarrena.- Ayerdi lehendakariordeak ardurako politikoak hartu behar zituen bere gain, ikusita Davalorrekin, azaltzen zaila den modu batez, egin zituen bidegabekeriaren pila, zeinek nafar guztiak, inbertitzaileak eta Nafarroako enpresa guztiak argiki kaltetu baitzituzten.

Bosgarrena.- Davalor Saludek Nafarroa marka eta Gobernuaren babesaren erabili zituen inbertitzaile berriak erakartzeko, behin lehen mailegua egin ondoren; horretan, gainera, Nafarroako Gobernuaren ondare-erantzukizuneko egoera bat gerta daiteke.

Seigarrena.- Azaltzen zaila den modu batez, eta datu, sintoma eta Nafarroako Parlamentuaren ohartarazpen guztiak gorabehera, Nafarroako Gobernuak, arduragabekeriak, Davalor Salud finantzatzeko jarraitu zuen, 2,6 milioi emateraino, enpresa legegintzaldiaren amaierara arte bizirik mantentzeko maniobra argi batez; halakorik ez zen gertatu, ordea, eta azkenean, diru publikoko kopuru handi bat galdu zuen.

Zazpigarrena.- Nafarroako Gobernuko lehendakariak, distrakzio-maniobra desesperatu batean, ez zuen egia esan iragarri zuenean Europa iparraldeko enpresa batek kontratu bat sinatua zuela Davalor enpresarekin, eta zorraren % 100 hartuko zuela bere gain.

Zortzigarrena.- Talde parlamentario sozialistak ohartarazten du Davalor Saluden ia bikia den beste enpresa bat sortu dela, Entrenador Automatizado de la Visión SA izena duena, zeina jatorrizkoaren alde apustu egin zuten nafar guztientzako laido bat izan baitaiteke.

F saila:
GALDERAK

Galdera, Nafarroan ekintzaileei ematen zaien tratuari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Guzmán Garmendia Pérez jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroan ekintzaileei ematen zaien tratuari buruzkoa. Galdera 2019ko urtarrilaren 25eko 9. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2019ko otsailaren 26an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

ERANTZUNA

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioko Guzmán Miguel Garmendia Pérez jaunak galdera parlamentarioa egin du (9-19/PES-00007) Nafarroako Gobernuak bertako ekintzaileei ematen dien tratuari buruz. Hona Garapen Ekonomikorako kontseilariaren erantzuna, Politika Ekonomiko eta Enpresarialaren eta Lanaren Zuzendaritza Nagusiak eta Sodena nahiz CEIN sozietateek emandako informazioaren arabera prestatua:

Galdera:

Egokia iruditzen al zaizu Nafarroako Gobernuak bertako ekintzaileei ematen dien tratua?

Nafarroan erabakitasunez laguntzen zaie ekintzaileei; izan ere, ekintzailetzaren garapenarekiko eta bultzadarekiko kezka etengabea da Nafarroako Gobernuaren politika ekonomikoan, zeinak horregatik hain zuzen ere jarri baititu berrikuntza eta ekintzailetza bere Espezializazio Adimendunaren Estrategiaren erdigunean, erkidegoaren oparotasunerako eta garapenerako giltzarri gisa. Horrek ez du esan nahi zer hobeturik ez dagoenik Nafarroako Gobernuak ekintzailetza bultzatzeko politiken eta neurrien arloan, ondotik zehazten den moduan.

Gure erkidegoan ekintzaileei zer tratua ematen zaien modu independentean eta objektiboan baloratzeko balio du Ekintzailetzako Jardueraren Tasak; izan ere, TEA siglekin ezagutzen den tasa horrek nazioarteko konparazioa egiteko balio du, eta ekimen ekintzaileak neurtzen ditu. Tasa horrek, bada, 2017an lortu zuen (2011tik aitzina begiratuta) bere baliorik altuena. Adierazle hori jarduera horretako datuak biltzen dituen txostenik garrantzitsuenean jasotzen da (GEM-Global Entrepreneurship Monitor), eta horrek era agerian uzten du nafar ekimenen kalitatea eta biziraupena.

Nafarroan ekintzailetzaren alde egiten diren jarduketa ugarien fruitu dira emaitza horiek, ekintzailetza aldezteko entitate publiko eta pribatuen sare oso batek –guztira, hamazazpi– egindako ahaleginaren fruitu. Indarrean dagoen 2017-2019 aldiko Ekintzailetza Planaren esparruan eta Nafarroako Gobernuaren gidaritzapean, Ekintzailetza aldezteko Nafarroako sare honek –navarraemprende.com atarian ikus daiteke zer entitate eta zerbitzu eskaintzen dituen– foru erkidegoko administrazioaren hainbat unitate, sozietate publikoak, enpresa-elkarteak, sindikatuak eta toki-ekintzako taldeak biltzen ditu.

Sare hori erreferentzia bat da da, hain zuzen ere, enpresa-proiektu bat abian jarri nahi duten pertsonen ahal den modurik egokienean eta pertsonalatuenean informazioa, aholkua eta jarraibideak emateko. Nafarroan ekimen bat abiarazi nahi duen pertsonak sare horretako entitate batera edo batzuetara jotzea da ohikoena, hartara gure erkidegoko ekintzailetza-sarean sartuko baita.

Nafarroako Gobernuaren eta haren mendeko sozietate publikoen kasuan, CEIN-Nafarroako Enpresa eta Berrikuntzarako Europako Zentroaren, SODENAREN bidez nahiz enpresei eta ekintzaileei arreta emateko Nafarroako Gobernuak daukan puntuetako baten bidez –esate baterako,

Politika Ekonomiko eta Enpresarialaren eta Lanaren Zuzendaritza Nagusikoaren edo Nafarroako Enplegu Zerbitzuko Iturrondo Zentrokoaren bidez-egin daiteke zuzenean.

Ekimen ekintzaileko pertsona pertsona gehienek CEINera jo ohi dute hasiera batean, espiritu ekintzailea bultzatzen duen eta enpresa berrien sorrera babesten duen Nafarroako Gobernuaren “besoa” delakoan.

CEINek eskaintzen dituen zerbitzuak ez zaizkie soilik zuzentzen enpresa bat abian jarri nahi duten pertsona ekintzaileei, pertsona potentzialki ekintzaileentzako edo autoenpleguarekiko kezka dutenentzako eta start ups berritzaileentzako ere badelako.

CEINera askok jo dute eta proiektu ugari sortu ditu. Hona hiru jarduketa-izenpe nagusietan 2018an lortutako emaitzak:

1. Ekintzailetza-aurreko fasea unibertsitateetan, lehiaketetan, Medtech bezalako programa sektorialetan, eta abar.

Sortutako proiektuak: 180 proiektu

Horietan aritutako pertsona ekintzaileak: 2.882 pertsona

2. Enpresen sorrerako fasea:

Artatutako proiektuak: 573 proiektu

Sortutako enpresak: 136 enpresa

3. Hazkunde eta sendotze fasea:

Berrikuntza-haztegi-tako enpresa kopurua: 40 enpresa instalatu dira. 15 enpresa berri 2018an.

Biziraupena: % 78koa enpresa sortu eta 3 urtera.

Enpleguaren sorrera: % 35eko hazkuntza urtean.

Egindako lan onare frogatuta dira egindako lana dela-eta jasotako aipamen independenteak:

– Entitate Nabarmenaren Saria, Nafarroako Unibertsitate Publikoak emana, ekintzailetzaren arloan unibertsitatean azken hogeitun urteotan egindako lanagatik, beti emaitza on-onak lortuta. CEINek batez beste 3.000 unibertsitariorekin, 75 iker-tzaileekin eta 50 irakasle baino gehiagorekin egiten du lan urtero. Lan on horren emaitza da unibertsitateetatik heldu diren pertsonak edo unibertsitateak eskaintzen dituen zerbitzuetatik igaro diren pertsonak egotea Ekintzaile-bultzada bezalako programa gehieneko edo CEINen berrikuntza-haztegi-tako enpresen buru. NUPen eskaintzen den zerbitzua da, CEINen berrikuntza-haztegi-ekin batera, aspaldikoena, eta hori soilik justifikatzen da unibertsitateetatik heldu diren pertsona berritzaileenei eta teknologikoenei eskaintutako tratua eta zerbitzu onari esker.

Unibertsitateko errektoreak saria emateko ekitaldian nabarmendu zuen 1996an sinatu zela entitate nabarmen gisa aintzatetsi den CEINekiko lehen hitzarmena, eta “sinadura haren ondorioz sortu zen lankidetzak, trinkoa eta etengabea denbora honetan guztian zehar, ikerkuntzaren eta berrikuntzaren emaitzetan oinarritutako enpresen sorkuntzako erreferente bihurtu duela NUP”.

– Ekintzaile-bultzada programak zortzigarren tokiara betetzen du Estatuko 73 azeleratzailearen artean, Funcas-Aurrezki Kutxen Fundazioak eta Rey Juan Carlos Unibertsitateak taxututako “Los servicios que prestan los viveros de empresas en España. Ranking 2016/2017” txostenaren arabera.

– CEINen berrikuntza-haztegi-ek zortzigarren tokiara betetzen dute azterlan horretan aipatzen diren 227 haztegi-ekin artean, eta toki bera izan du 2018an ere.

– CEINen lanean sinesten duten enpresa laguntzaileak, zeina Ekintzaile-bultzada bezalako programei emandako babesean gauzatzen baita, 8.000 euroko diru-ekarpena eginez eta zuzendaritza-kideen aipamena eginez. Hona sei urteotan babesle gisa jardun diren enpresak:

1. edizioa	2. edizioa	3. edizioa	4. edizioa	5. edizioa	6. edizioa
Rural Kutxa	Rural Kutxa	Rural Kutxa	Rural Kutxa	Rural Kutxa	Rural Kutxa
Correos	Correos	Correos	Correos	Correos	Correos
Cinfa	Cinfa	Cinfa	Cinfa	Cinfa	Cinfa
Viscofan	Viscofan	Viscofan	Viscofan	Viscofan	Viscofán
Mtorres	Mtorres	Mtorres	Mtorres	Mtorres	Mtorres
Iberdrola					
	Mondragón	Mondragón	Mondragón	Mondragón	Mondragón
	Jofemar	Jofemar	Jofemar	Jofemar	
	Mutua Navarra	Mutua Navarra	Mutua Navarra	Mutua Navarra	Mutua Navarra
			Uscal	Uscal	Uscal
				Inycom	Inycom
					Zabala
6	8	8	9	10	10

Lehendabiziko edizioan sei enpresa pribatuk babestu zuten programa hau, CEINen “ekimen pilotu” gisa. Taulan ikus daitekeenez, guztiek errepikatu dute edizio guztietan, Iberdrola (eta Jofemar azken edizioan) izan ezin, programarekin zerikusirik ez zuten arazoengatik. Gaurko egunean hamar dira Ekintzaile-bultzada programa aldeztuten duten enpresak.

– Azkenik, CEIN azeleratzailearen bezeroen jatorriari buruzko estatistikei erreparatzen badiegu (2018an eta 2019tik daramagun denbora honetan artatutako 573 proiektuei dagozkienak), ikus daiteke horietako gehienak aspaldiko bezeroen edo beste erakunde batzuen gomendioei esker heldu direla. Horrek erakusten du, beste behin ere, CEINek zer tratatu ona ematen dien erkidegoko pertsona ekintzaileei:

	2018	2019
CEINen aspaldiko bezeroa	% 8	% 12
Beste entitate batzuetatik heldu direnak (INEM, Udala, Merkataritza Ganbera, Hirigintza, bankuak, eta abar).	% 37	% 38
CEINen beste programa batzuetatik heldu direnak (Luce, Denda Naiz, Impulso, Iníciate, eta abar).	% 8	% 7
Navarra Emprende, CEINen sare sozialak, CEINen webgunea	% 17	% 11
Aspaldiko bezeroen gomendioz	% 29	% 31

CEINek ekimenak jasotzen ditu, aholku ematen du eta tutoretza egiten du; SODENAK, berriz, horien finantzaketarako aukerak ebaluatzen ditu. SODENAKo CAPITAL SEMILLAko arloak (Start up, SSU) bere helburuen artean dauka, arrisku-kapitalaren tresna erabiliz, bere beharrezanen arabera finantzatzea enpresa-proiektuak, garapen-fasea eta tipologia.

SODENAK proiektu bat detektatzen duenean edo sustatzaile batek SODENARA jotzen duenean, CAPITAL SEMILLAko arloari egokitzen baldin bazaio, sustatzaileek emandako informazioaren lehen analisi bat egiten da eta hasierako bilera bat

egiten da. Lehen harreman horren ostean erabakitzen da ea proiektua arloari egokitzen zaion ala beste arlo bati dagokion edo SODENAREN esparruko beste entitate batzuei pasatzen zaien, bere beharrezan aurre egiteko egokiagoak direlako.

Proiektuaren negozio-planetik abiatuta egiaztatzen da ea exigitutako baldintzak betetzen dituen (kokapena, sustatzaileak, zuzendaritza-taldea, langileen bilakaera, proiektua eta inbertsio partekatua). Irizpide horiek betetzen baldin badira, laburpen-agiria taxutzen da, honako hauek eztabaidatu dezaten:

- partaidetza-maileguen kasuan, SODENAKo zuzendaritza-komiteak, zeinak SODENAKo administrazio kontseiluari emanen baitio informazioa.

- Start up-en kasuan, Start Up-en inbertsio komiteak eta administrazio kontseiluak; kapital-partaidetzen kasuan, berriz, SODENAKo administrazio kontseiluak.

Organo horiek onesten dute inbertsioa, edo inbertsioa onesteko bete beharko lirerateen gomendioak adierazten dituzte. Informazio hori sustatzaileei ematen zaie, eta aldeek notarioaren aitzinean sinatu beharreko dokumentuen negoziatio eta akordio prozesua abiarazten da (partaidetza-mailegua, bazkideen arteko ituna...).

Halaber, SODENAREN bidez lankidetzahitzarmenak egiten dira ELKARGI eta SONAGAR elkar bermatzeko sozietateekin, ekintzaileen nahiz enpresa txiki eta ertainen eta mikroenpresen finantzazioa aldezteko. Hitzarmen horien babesean, 598 operazio sinatu dira 2016an abiatu zenetik 2018ra bitarte, guztira ehun milioi euro baino gehiago egiten dutenak.

Nekazaritzako elikagaien arloko Orizon azeleratzailearen kasuan, jaso diren hamabost proiekturik onenak hautatzen ditu SODENAKo eta CEINeko langileek osatutako batzorde misto batek, berariazko ebaluazio-irizpide hauei jarraiki:

- Ekipoa (% 30)
- Produktua edo zerbitzua (% 20)
- Merkatua (% 20)
- Enplegua (% 10)
- Kokapena (% 5)

- Finantzak (% 5)
- Hazgarritasuna (% 5)
- Enpresa (% 5)

Hautatutako hamabost proiektuek aurkezpen bat egin behar dute Orizont-en aholku-batzordean, eta batzorde horrek gehienez ere zortzi hautatuko ditu bultzatzeko eta finantzarioki aldezteko.

Azeleratzaile hori 78 azeleratzailearen rankingean lehena da, Funcas-Aurrezki Kutxen Fundazioak eta Rey Juan Carlos Unibertsitateak taxututako “Los servicios que prestan los viveros de empresas en España. Ranking 2016/2017” txostenaren arabera. Bi erakunde horiek Espainiako enpresa-haztegiaren egoera aztertu dute, eta lehen aldiz orobat aztertu dute azeleratzaileena, enpresa-sarearen garapenaren katalizatzaile diren aldetik.

Halaber, SODENA finantza-ekimen berritzaile eta efizienteena zela adierazi zuen Orizont azeleratzaileak Garapen Ekonomikoko Agentzien Europako Elkartearen Eurada Awards 2017 III. edizioan. Sari horien helburua da EURADAKo kideek eta Europako beste garapen-agentzia batzuetakoek garapen ekonomikoa sustatze aldera abian jarritako ekimen berritzaileak identifikatzea eta nazioartean ezagutzera ematea eta Europako erakundearen nahiz profesionalen artean horiek sustatzea. Epaimahaiak Orizont-en moldagarritasun handia eta berritasuna nabarmendu zituen, nekazaritzako elikagaien sektorea aldezteko eta garatzeko lehen azerleratzailea izateagatik.

Azkenik, hona Semilla arloaren eta Orizont azeleratzailearen 2018ko jarduera-kopuruak:

Semilla/StartUp arloa

Hartutako proiektuak	Aztertutako proiektuak	Onetsitako proiektuak
88	27	7*

*5 proiektu berri + 2 operazio lehendik zeuden partaidetza-entitateekin

Orizont azeleratzailea

Intereseko proiektuak	Aztertutako proiektuak	Hautatutako proiektuak	Azeleratutako proiektuak
274	75	6	4

Bukatzeko, ezin dugu balioan jarri gabe utzi pertsona ekintzaileei babes emate aldera II. Ekintzailetza Planaren baitan Nafarroako Gobernuak zuzenean eta egunero egiten duen lana. Babes horren ondorioa da aholku eta dirulaguntzak ematen zaizkiela negozioa abian jartzeko hasieran egin beharreko gastuetarako eta inbertsioetarako, bai eta pizgarri fiskalak ere; hor dira, esaterako, 26/2016 Foru Legearen hirugarren xedapen gehigarrian ekintzailetza aldezte aldera jasotzen diren babes-neurriak, edo sozietateen gaineko zergan interes-tasa nominal oso mesedegarria egotea milioi bat euro baino gutxiago fakturatzen duten enpresentzat.

Eta orobat egiten da lan administrazio-zuzemena soiltzeko eta azkartzeko, hori baita, herritarren

ustez, ekimenak abiarazteko dagoen oztoporik handiena. Argi dago zer hobetua badagoela, baina beste erkidego batzuen aldean Nafarroak hirugarren tokia betetzen du negozioak egiteko erraztasuna neurtzen duen Doing Business rankingean, eta azken urteotan aurrerabidea eginda izpidetze telematikoaren arloan, halako moduan non enpresak irekitzeko eta autonomoetan alta emateko denbora murriztu baita.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2019ko otsailaren 26an

Lehen lehendakariordea eta Garapen Ekonomikorako kontseilaria: Manu Ayerdi Olaizola

Galdera, ikastetxe publikoetan 2019-2020 ikasturterako lanaldi jarraitua ezartzeko prozedurari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Alberto Catalán Higuera jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, ikastetxe publikoetan 2019-2020 ikasturterako lanaldi jarraitua ezartzeko prozedurari buruzkoa. Galdera 2019ko urtarrilaren 25eko 9. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2019ko otsailaren 12an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

ERANTZUNA

Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioari (UPN) atxikitako foru parlamentari Alberto Catalán Higuera jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du (9-19/PES-00008). Hauxe da Nafarroako Hezkuntzako kontseilariaren erantzuna:

1.- Gorabeherarik izan al da 2019-2020 ikasturterako zenbait ikastetxe publikotan lanaldi jarraitua ezartzeko prozeduran? Zer ikastetxetan?

Bai. Honako ikastetxe hauetan:

1. Iruñeko Cardenal Ilundain HLHIPa
2. Garesko Puente la Reina HLHIPa
3. Orkoiengo San Miguel HLHIPa

4. Altsasuko Iñigo Aritza Ikastola

2.- Zein izan da detektatu den gorabehera?

Lehenengo hiru ikastetxeetan, gurasoen erreklamazioak egon dira, postontzi bidezko bozketasistema dela eta.

Laugarrenean, gurasoen erreklamazio batzuetan zalantzan jarri da legearen arabera den ikastetxeak boto-paperetan hiru boto-aukera ezartzea, arauak bi aukera ematea jasotzen baitu. Alde edo kontra bozkatzeaz gainera, zuzendaritza-taldeak hirugarren aukera gehitu zuen, boto zuriarena. Kasu horretan aurrean, lehenengo hiruenaz bestelakoa baita, Hezkuntza Departamentuak honela erantzun zion aurkeztutako eskaideari:

“Gure ustez, ikastetxearen kontsultan ageri den galderari erantzuteko hirugarren aukera sartzek, irregulartasun administratibo bat bada ere, zeren eta ez baitzaio egokitzen deialdian xedatutakoari, ez du aldarazten bozketaren amaierako emaitza, zeren eta ez baitu aldatzen aldeko botoen % 60ra iristeko beharra; izan ere, “baiezkoa” ez den boto oro gehiengo horretara iristeko eragozpen bat da.

Aurrekoarekin bat, ez dugu uste kontsultan lortutako emaitza ezeztatu behar denik, zeren eta

azaldutakoa kontsultari balioa kentzen ez dion irregulartasun administratibo huts bat izan baita.

3.- Orain auzitan jartzen den prozedura berritasun bat izan al da ala beste zenbaitetan ere baliatu izan da? Departamentuak ba al zuen egoera horren berri?

Hezkuntzako zuzendari nagusiaren azaroaren 15eko 593/2018 Ebazpenean ezarritako prozedurak inongo berritasunik ez dakar aurreko deialdiekin alderatuta.

Oraingoan, balizko irregulartasunak jasota geratu dira gurasoek erregistro bidez egindako salaketan bitartez, eta horiek direla-eta jardun dugu.

4.- Departamentuak zer neurri hartu du aurreko urteetan eta oraingo honetan?

Hezkuntza Departamentuak ez zuen ezer egin aurreko prozesuetan, zeren eta haietan parte hartutakoek ez baitzuten inongo erreklamaziorik aurkeztu.

Oraingoan, aipatutako ikastetxeetako hezkuntza komunitateko kideek egindako erreklamazioen bidez gorabeherak ezagututa, Hezkuntza Departamentuak behar ziren argipenak egin zituen ebazpenean propio jarritako postontziaren bidez botoa emateari buruzko ebazpenean jasotako apartatuak zuzen interpretatzeko, eta ahaleginak egin zituen hasitako prozesuaren jarraipena bermatzeko, bai eta gardentasuna eta parte-hartzaileen aukeren berdintasuna bermatzeko ere.

Iruñean, 2019ko otsailaren 12an

Hezkuntzako kontseilaria eta Gobernuko ele-duna: María Solana Arana

